

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 11/2017

ERABAKIA, (...)AK EGINDAKO SALAKETARI BURUZKOA. EUSKO JAURLARITZAKO (...)KO ZUZENDARIAREN JARRERA SALATU DU, ETIKA ETA JOKABIDE KODEA BETE EZ DUELAKOAN.

1.- 2017ko azaroaren 8an (...) jaunak mezu elektroniko bat bidali zuen Etika Publikorako Batzorde honen Idazkaritzara. Horren bidez "kontsulta" bat egin zuen honi buruz: "Eusko Jaurlaritzako (...)ko zuzendariaren jokabideaz, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea urratu duelakoan".

2.- "Kontsulta"ren idazkia, 2017ko urriaren 8ko hori, azaroaren 9ko mezu elektroniko batekin ordezkatu zen. Eduki bera zuen, baina hasieran jaso zen data zuzendu zen bertan, eta azaroaren 8a jarri zen jatorrizkoaren ordezkari.

3.- "Kontsulta"ren egileak bere idazkian baieztatu duenez, (...) jaunak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko administrazio-egituraren kargua dela-eta ((...)ko zuzendaria da), "Kodean ezartzen dena betetzeko obligazioa du". Eta xede horretarako gogorarazi du, Kodearen 15 h) eta i) letretan ezarritakoaren arabera, Kodean jasotzen diren manuen mende dauden kargu publikoek hedabideetako eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela, baina "Gobernuaren jarrerak defendatuz" eta "Gobernuaren jarrera politikoei desadostasunik" adierazi gabe eta "jarrera horiek [...] argi eta garbi kritikatu" gabe.

4.- Idazkian adierazten denez, EPB honek 10/2017 Erabakian jasotako irizpenaren arabera, kontsultaren egileak "ezingo du parte hartu programan bere iritzirik pertsonalak adierazteko, baizik eta une oro <<Gobernuaren berezko jarrerak>> defendatzeko; ondorioz, ezin izango du inoiz adierazi<<jarrera politikoei desadostasunik, eta jarrera horiek ez ditu argi eta garbi kritikatu>>".

5.- Erabaki horri dagokionez, "kontsulta"ren egileak adierazi du EPBk erabaki horretan ezartzen duela "zein baldintzetan parte har dezakeen (...) jaunak, edota beste kargu publikodun batek, edozein hedabideetako eztabaidetan". Aitzitik, "ez du argitzen —ez zitzaion halakorik eskatu— (...) jaunak urriaren 10ean (...)ko tertulian egin zituen adierazpenek Etika eta Jokabide Kodea urratu zuten". Eta —gaineratu zuen— horixe zela, hain justu, "kontsulta honen bidez orain Etika Publikorako Batzordeari eskatzen zaiona, hori argitu dezala".

6.- Idazkian aipatzen dituen (...)bidezko adierazpenetatik, Konstituzioaren 155. artikulua Katalunian ezartzearekin zerikusia dutenak nabarmendu eta azpimarratu ditu "kontsulta" egileak. Adierazpen horietan, (...) jaunak honako hau adierazi zuen: "norbaitek legez kanpo geratzen baldin bada, beharrezko neurri orekatuak hartu behar dira legedia berriz indarrean

jartzeko, 155. artikulua barne". Gero, Puigdemont presidentea atxilotzeko aukerari buruz zera adierazi zuen: "irtenbide bakarra izan zitekeela" eta "horrela jarraitzen badu aurrerantzean, ez dut uste beste biderik egon litekeenik".

7.- "Kontsulta"ren egilearen iritziz,

“Bistakoa da adierazpen horiekin (...) jauna Jaurlaritzaren izenean Iñigo Urkullu Lehendakariak ezarritako posizio politiko ofizialaren aurka kokatu zela. Guztiz aurka. Konstituzioaren 155. artikulua aplikazioa ez da bigarren edo hirugarren mailako afera bat, izugarritzko garrantzia eta inplikazio politikoak ditu, eta Lehendakaria da Jaurlaritzaren iritzi ofiziala ezartzen duena. (...) jaunak (...)an 155. artikulua aplikatzearen alde agertu zenerako, Lehendakariak horren kontrako posizioa adierazia zuen jada behin baino gehiagotan, bere esanetan, Gobernu espainolak Katalunian bide hori hartzea “akats larria” litzatekeelako.

Hortaz, nire iritziz argi dago (...)ko Saileko (...)ko zuzendariak ez zituela Gobernuaren berezko jarrerak defendatu, Etika eta Jokabide Kodeak eskatu bezala. Are gehiago, Gobernuaren jarrera politikoeziko desadostasuna adieraziz, Kodeak xedatutakoa urratu zuen."

8.- Aurrekoaren ondorio gisa, (...) jaunak EPB honi eskatu dio "azter dezan aipatutako gertakariak zer-nolako larritasuna izan duen, zer eragin publiko duen eta zer ondorio ekarri dizkion Jaurlaritzaren irudi instituzionalari". Eta beren-beregi eskatu dio Batzordeari "ebatzi dezan gertakarian parte hartu duen pertsona ((...) jauna) kargutik berehala kendu beharra dagoen edo gertakarien larritasunarekin bat datozen bestelako neurri batzuk hartu behar diren".

9.- Egin duen eskaerari dagokionez, "kontsultaren" egileak erantzuteko eskatu dio EPB honi, "urtean behin egiten duen ohiko bilerara itxoin gabe". Eta horri buruz adierazi du hau: "Batzordeak hala egin zuen kontsulta (...) jaunak egin zuenean, handik bost egunera (urriaren 16an) ebazpena argitaratu baitzuen. Oraingoan ere berdin egitea espero dut, kontsultaren oinarrian afera bera dagoelako eta herritarren ordezkari zori zaien errespetuagatik."

10.- Hori horrela, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 artikuluko bigarren tartekiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, Etika Publikorako Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1. Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren zentzu etikoa berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeke erronkari erantzutea ere.

Horretarako, aipatutako kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzeko, haren eraginkortasuna sendotzeko eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzeko.

2.- EJK-k oinarritzko bost balio ditu ardatz: osotasuna, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz izanik, kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, beren borondatez kodeari atxikita dauden kargu publikodunek eta parekatuek zein kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, EJKren 16.3. zenbakiaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da *"Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea"*.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- (...) jaunak planteatu duen kontuarekin zerikusia duen edozein gogoeta egin aurretik, egokia da EJKn aurreikusita dagoen demanda- eta eskaera-tipologiaren ikuspegitik ezaugarritzea EPBren esku-hartzea eskatzen duen idazkia. Izan ere, idazki hori ez da modu berdinean izapidetuko "kontsulta"tzat [EJKren 16.3.1.d) paragrafoa] edo "kexa edo salaketa"tzat [EJKren 16.3.1.e) paragrafoa] hartuz gero.

2.- Hain zuzen ere, Kodeak horri buruz adierazten du "kexa edo salaketa" denean bakarrik eman beharko diola EPBk "dagokion izapidea". Izapide horrek, ageriko eta funtsezko berme-arrazoiak tarteko, errespetatu egin behar du herritarrek duten eskubidea entzunak izateko

beren hasierako egoera juridikoa mugatu dezaketen edozelako neurriak hartu aurretik. Horixe izan da EPB honen jarduteko modua, izapidetzeko onartu diren salaketa guztietan (ez kontsultetan). Salatutako pertsonari beti eman die beren eskubideak babesteko alegazioak egiteko aukera (adibidez, 6/2013, 4/2015, 2/2016, 1/2017 eta 2/2017 Erabakietan).

3.- (...) jaunak "kontsulta"tzat hartu badu ere bere idazkia (testuan zehar, bi aldiz), kontua da idazkiaren eduki materialak, hemen interesatzen zaizkigun xedeetarako, kexa edo salaketa baten profilarekin egiten duela bat gehiago, bere ustean "Kodeak ezarritakoa argi eta garbi urratu duten" egitate batzuen berri eman baitio EPB honi, eta, horrekin koherente izanik, berariaz eskatzen baitu Batzordearen irizpena, honako hau adieraztean: "ebatzi dezan gertakarian parte hartu duen pertsona ((...) jauna) kargutik berehala kendu beharra dagoen edo gertakarien larritasunarekin bat datozen bestelako neurri batzuk hartu behar diren".

EPB honek ezingo luke mota horretako neurririk hartu —edozein izanda ere izaera murriztailean edukiko lukete-eta—, salatutako pertsonari alegazioak egiteko entzute-izapidea egin aurretik. Horrek guztiz urruntzen gaitu "kontsulta"ren iruditik (normalean interesdunak berak formulatzen du), eta "kexaren edo salaketa"ren eremuan jartzen gaitu zuzenean. Kexak eta salaketak, normalean, eta kasu honetan gertatu den bezalaxe, hirugarren batek jartzen ditu, eta, ondorioz, ezin daitezke bideratu salaketaren xede den pertsonari entzun aurretik.

Gainerakoan, "kontsulta"ren egileak berak norabide horri begiratzen diola dirudi; izan ere, EPB honen esku-hartzea eskatzeko oinarri den EJKren paragrafoa identifikatzen duenean, 16.3.1.e) puntuari ere heltzen dio, "kexei edo salaketei" buruzko esaldia errepikatuz, koma artean.

4.- Entzuteko izapidera jo aurretik, ordea, eta ageriko arrazoi ekonomikoak direla medio, aurkeztu diguten kontua EPB honek aurretik zuzenean nahiz zeharka ebatzi duen aztertu behar da, esku artean dugun kasuak lotura nabarmena baitu urriaren 16ko 10/2017 Erabakian jorratu genuenarekin ((...) jaunak bere idazkian aipatu du erabaki hori). Hori egiaztatu behar da. Izan ere, kasua EPBren aurreko irizpen batean ebatzi baldin bada, alferrikakoa litzateke alegazioen izapidea bideratzea, aurreko data bateko ebazpena errepikatuz mugatuko den ebazpena emango baita.

5.- (...) jaunak bere idazkian aitortu du EPB honek irizpena eman zuela (...) Saileko (...)ko zuzendariaren kontra jarri duen salaketarekin zerikusia zuen auzi batean. Hala ere, hurrengo lerroan adierazten du horren inguruan hartu zen Erabakiak "ez duela argitzen —ez zitzaion halakorik eskatu— (...) jaunak urriaren 10ean (...)ko tertulian egin zituen adierazpenek Etika eta Jokabide Kodea urratu zuten. Horixe da, hain justu, kontsulta honen bidez orain Etika Publikorako Batzordeari eskatzen zaiona, hori argitu dezala".

6.- Salaketaren egileak arrazoi du baieztatzen duenean 10/2017 Erabakian ez zela iritzirik eman salatuak urriaren 10ean (...)an egin zituen adierazpenen zilegitasun etikoaren inguruan. Halaxe da: ez zen iritzirik eman. Eta ez zuen egin, (...) jaunak berak zehaztu duen bezala, EPB honi ez zitzaiolako halakorik eskatu. Horrek ez du esan nahi, ordea, Erabaki hartan ez zenik arrazoi eta argudio nahikorik eman salaketa hau ebatzita dagoela ulertzeko.

7.- Hain zuzen ere, 10/2017 Erabakiaren II. atalaren 1. zenbakian gogorarazi genuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko autonomikoan eginkizunak betetzen dituzten kargu publikoentzat EJKren indar loteslea eraginkorra egiteko unearen inguruan EPB honek finkatu duen doktrina (besteren artean, 1/2015, 4/2015, 8/2015, 1/2017 eta 2/2017 Erabakietan islatzen da). Bada, 3. zenbakian egiaztatu genuen salatutako pertsonaren kasu zehatzean, kargua hartzeko izendatu berri baitzuten, EJKn horri banaka atxikitzeko ezarrita dagoen epea igaro ez zela, eta, are zehatzago, kontsulta egin zen unean (2017ko urriaren 11n) egilea ez zegoela oraindik EJKren manuei formalki lotuta.

Horrekin bat, Erabakiaren ebazpen-zatiak 1. atalean berariaz esaten zuen ez zela egokia bere jarreraren zilegitasun etikoaren gaineko irizpenik ematea, oraindik EJKren manuen mende ez zegoen pertsona baten ingurukoa baitzen auzia. Baldintza horietan, agerikoa zen EPBk ez zuela ahalmenik bere jokaera ebaluatzeko, jokaera horrek Kodean jasotzen diren balioekin, printzipioekin eta jarrerekin bat ote zetorren ebazteari begira. Hori bai, hurrengo lerroan, hau gogorarazi genion kontsultaren egileari:

EJKren 18. ataleko 1. eta 5. zenbakietan ezarritakoaren arabera, “kargu publikodunen izendapen berriak egiten badira, ezinbestekoa izango da kargu berri horiek, banan-banan, Kodearen edukiari atxikitzea”. Horrenbestez, aipatu atxikipena epe barruan egiten ez bada, “ulertuko da interesdunak ez duela Etika eta Jokabide Kodea betetzen, eta, jarraian, luزامendutan ibili gabe, ofizioz edo alderdiren batek eskatuta, jarduketak instruitzeari ekingo zaio Etika Publikorako Batzordean. Batzorde horrek, entzunaldiaren izapidea egin ondoren, eta, beharrezkoa bada, arduradunari proposatuko dio kontratua desegin dadila edo interesdunak kargua utz dezala”.

8.- Erabaki honetan hizpide dugun salaketa erregistratu ondoren, (...) jauna EJKra atxikita zegoen galdetu behar izan zion EPB honek Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Langileak Kudeatzeko Zerbitzuari. Izapidea nahitaezkoa zen, EJK-k bertara atxikitzeko aurreikusten dituen betekizun guztiak —banakako atxikipena barne—betetzen dituzten pertsonen gaineko erabakiak hartzen ditu-eta soil-soilik. Galdera egin eta gero, Langileak Kudeatzeko Zerbitzuak azaroaren 10ean jakinarazi zuen (...) jauna 2017ko urriaren 16an atxiki zela EJKra. Horrek esan nahi du Kodeak horren gainean ezartzen dituen jarraibideak eta epeak bete dituela, epeari eta formari dagokionez.

9.- Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko autonomikoan eginkizunak betetzen dituzten kargu publikoentzat EJKren indar loteslea eraginkorra egiteko uneari dagokionez, 10/2017 Erabakian finkatutako irizpidea errepikatu behar du orain EPB honek. Irizpide hori ez da, esan den bezala, *ad casum* marraztutako doktrina bat, baizik eta aurreko irizpen askotan eduki dugun postulatuaren adierazpena. Ofizialki izendatu den eta Katalogora sartu den kargu publikoak EJKren banakako atxikipena sinatzen duenean egiten bada eraginkorra EJKren indar loteslea (jakina, xede horretarako ezarrita dagoen 15 eguneko gehieneko epearen barruan), une horren aurretik agertu dituen jarrerak eta jokabideak ez dira Kodearen mende egongo, Kodeak berak salbuespenez aurreikusten ez badu aurreko une batean gertatu diren egitateetara atzera egitea; adibidez, 15.d) atalean aipatzen den kasuan.

Gainera, aurreko puntuetan adierazi dugun bezala, aipatu berri ditugun kasu horietan izan ezik, EPB hau ez dago gaituta izendatu berri diren kargu publikoek izendatzen dituztenetik EJKra banan-banan atxiki arteko tartean agertzen dituzten jarrerak edo jokabideak ebaluatzeko.

10.- Esku artean dugun kasuan Kodeak ez duenez aurreikusten bere manuak atzera eginez ezartzeko aukera —gehiago egiten du kontrakoa; izan ere, kasu honi aplikagarri zaizkion paragrafoetan, "kargu publikoak" aipatzen dira, zehaztapen gehiagorik gabe, eta horrek esan nahi du, beraz, EJKn xedatutakoa aplikatu ahal izateko betekizun guztiak betetzen dituzten pertsonak zaindu edo, hala badagokio, saihestu behar dituzten jokaerak definitzen dituela—, argi dago ez dagokiola EPB honi berariazko irizpenik ematea Batzordearen eraketa xedatzen duen arauak zehatz-mehatz finkatzen dituen muga subjektiboetatik harago.

11.- Salaketaren egileak egin duen eskaera kargu publiko baten jarreraren zilegitasun etikoaren inguruko azterketa abstraktua —ariketa teoriko moduko bat, ondorio juridikorik gabea— egiteko eskaera dela interpreta daiteke, EJKren manuen arabera. Alabaina, EPB hau ez da faro etiko unibertsal bat. 4/2015 Erabakian nabarmendu genuen bezala, "EPB hau ez da instantzia ahalguztidun eta ia jainkozko bat, botere mugagabeak dituena arrazoiz eta hutsik gabe irizpena emateko etikaren arloan eragina duen giza biziaren edozein alderdiri buruz. [...] EPBren jardun-arlo subjektiboa ez da unibertsala, haren bigarren puntuan "hartaileak" epigrafearen pean zerrendatzen diren pertsonetara mugatzen da hertsiki". Ildo berean, 8/2015 Erabakian esan genuen, aurreko irizpenez ari ginela, "EJK ez dela *erga omnes* indar loteslea duen arau juridikoa, printzipio, balio eta jokabide etikoaren katalogoa baizik, eta hari atxiki zaizkion pertsonentzat baino ez dela nahitaez bete beharrekoa".

12.- Jakina, aurreko guztiak ez du esan nahi etorkizunean salaketa honen xede den kargu publikoak —edo EJKren manuetara benetan atxikitzeko betekizunak betetzen dituen beste

edozeinek— komunikabideetan parte hartzen badu eta parte hartzeko moduak 10/2017 Erabakian finkatu genuen doktrinarekin bat egiten ez badu (...) jaunak —edo beste edozeinek— salaketa jarri ezin duenik; eta, jakina, EPB honek behar bezala izapidetuko du salaketa hori.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk honako hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Salaketak aipatzen dituen adierazpenak egin zirenean (2017ko urriaren 10ean), (...) jaunak oraindik ez zuen formalizatu, xede horretarako ezarrita dagoen epearen barruan egonik, EJKren manuetara pertsonalki eta banaka atxikitzeko izapidea, eta, beraz, ez da berariazko adierazpenik egingo bere jarreraren zilegitasun etikoaren gainean, EPB honek esleituta dituen ahalak gainditzen baititu horrek.

2.- Etorkizunean, salaketa honen xede den kargu publikoak —edo EJKren manuetara benetan atxikitzeko betekizunak betetzen dituen beste edozeinek— komunikabideetan parte hartzen badu eta parte hartzeko moduak 10/2017 Erabakian finkatu genuen doktrinarekin bat egiten ez badu, (...) jaunak —edo beste edozeinek— salaketa jarri ahal izango du, eta, jakina, EPB honek behar bezala izapidetuko du salaketa hori.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 13a.